

LUKASEK

MASTURBAZIOA DESKUBRITU DU

Seme-alaba autisten gurasoendako gida

Egilea: Leila López Nieto



Sextea® es una marca registrada. Todos los derechos reservados.

Primera edición: julio 2024

Segunda edición: agosto 2025

Autora: Leila López Nieto

Traducciones: C.P "San Miguel"-Doneztebe

Doneztebeko "San Miguel" I.P

Autor pictogramas: Sergio Palao. Origen: ARASAAC (<http://www.arasaac.org>). Licencia: CC (BY-NC-SA). Propiedad: Gobierno de Aragón (España)

Presentación diseñada con Canva. web: www.canva.com

La publicación de esta guía puede estar sujeta a futuras correcciones y ampliaciones por parte de la autora.

No se permite la reproducción total o parcial de esta guía, ni su incorporación a un sistema informático, ni su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio sin permiso previo de la autora.

SARRERA

Gizonezkoen masturbazioak jakin-mina eta eztabaida sortzen du askotan. Ekintza erabat naturala eta arrunta da, eta adin eta kultura guztietako gizonek mundu osoan egiten dute. Lukasek 10 urte ditu eta bere genitalekin esperimentatzen hasi da. Gurasoak kezkatuta daude ez dakitelako gai horiei buruz Lukasek dituen jakin-minei aurre hartzeko eta erantzuteko gai izanen ote diren. Lotsa pixka bat ere sentitzen dute gai jakin batzuei buruz solas egin behar dutelako edo hiztegi zehatz bat erabiltzen dutelako. Agian zuri ere gertatzen zaizu. Gida labur honek zure semearekin masturbazioari buruz modu arrunt eta erraz batean solas egiten lagunduko dizu.



Leila López Nieto

Sexologoa eta Gizarte Langilea,
autismoan espezializatua



HELBURUAK

Helburua 1

Zure semeak
masturbazioa zer den,
bere genitalak non ukitu
ditzakeen eta non ez,
higiene-jarraibideak eta
bertzelakoak ezagutzea.
Gertatuko zaiona
aitzintzeak lasaitasuna
eta segurtasun
handiagoa emanen dio.

Helburua 2

Zuen semeari
masturbazioarekin
zerikusia duten gaiak
aitzintzen laguntzeko gida
bat izatea.
Laguntza bisual batek gai
horiei errazago heltzen
lagunduko dizue.




KAIXO! NI LUKAS NAIZ...

10 urte ditut eta Valentziako herri batean bizi naiz.

Nire aitak Rafa izena du eta nire amak, berriz, Sonia. Zazpi urteko arreba bat daukat eta bere izena Luzia da. Iris izeneko dortoka eder bat daukat. Izugarri gustatzen zait berarekin jostatzen aritzea etxeko lorategian.

Hegazkinak ere aunitz gustatzen zaizkit. Eredu eta tamaina askotako bilduma bat daukat.

Nire urtebetzean beti hegazkin berriak oparitzea nahi izaten dut.



ZER DA MASTURBAZIOA?

Gizonezkoen masturbazioa genitalak estimulatzea da plazer sexuala lortzeko, eta azken batean, orgasmoa.

Hainbat modutan egin daiteke, erraterako, eskua erabiliz, objektu baten kontra igurtziz edo jostailu sexualak erabiliz.



MASTURBATU EZIN NAIZEN LEKU PUBLIKOAK



Gela



Denda



Ateraldia



Karrika



Egongela



Garraioa



MASTURBATU AHAL NAIZEN LEKU PRIVATUAK




Nire etxeko komuna




Nire logela



Hoteleko logela



**Bakarrik
eta atea
itxita**



GIZONEZKOEN KANPOKO GENITALAK




ZAKILA

ENBORRA


PREPUZIOA

BARRABILAK

GLANDEA



BATZUETAN ESZITAZIOA SENTITZEN DUT ZERBAIT
IKUSTEN DUDANEAN, BAITA
ZAKILA NIRE ESKUAREKIN EDO OBJEKTUREN
BATEKIN UKITU EDO ESTUTZEN
DUDANEAN. ESZITATZEN NAIZENEAN ZAKILA
ODOLEZ BETETZEN DA, GOGOR
JARTZEN DA ETA GORATZEN DA.



I. URRATSA

Higienea arrunt
garrantzitsua da,
horregatik nire zakila
ukitu aitzinetik, ongi
garbitzen ditut
eskuak xaboiarekin,
infekzioak saihesteko.



2. URRATSA

Batzuetan masturbatzen naizenean eiakulatzen dut eta semen izeneko likido bat kanporatzen dut. Horregatik lehenago toallatxoak edo komuneko papera prestatzen dut ez zikintzeko.





3. URRATSA

Leku pribatu batean
nagoela ziurtatzen
dut, bakarrik eta atea
itxita.



4. URRATSA

Nire galtzak eta
galtzontziloak jausten
ditut. Erabat kendu
ahal ditut edo soilik,
pixka bat
jautsi.




5. URRATSA

Zakilaren enborra eskuarekin laztantzen dut, modu erritmiko batean, goitik beheiti eta alderantziz.

Inoiz ez egin modu zakarrean.

Masturbazioan ez dago minik, plazerra baizik.



MASTURBAZIOA



Labaingarriren bat erabili dezakezu zakilaren larruan tiraldiak saihesteko.




6. URRATSA

Plazerraz gozatzen dut.
Gozatzeko une bat da
niretzat.

Batzuetan, masturbatzen
denbora tarte bat
pasatzen dudanean,
eiakulatzen dut eta
orgasmoa sentitzen dut
(tentsio sexuala askatzen
dut). Ez dut ukitzen naizen
guztietan eiakulatzen.

EIAKULAZIOA



Onurak

- Estresa murrizten laguntzen du.
- Loia hobetzen du.
- Sistema immunologikoa indartzen du.
- Pilatutako tentsio sexuala arintzen du..



7. URRATSA


Eiakulatzen dudanean,
aitzinetik prestatutako
toallatxo edo komuneko
paperarekin semena
garbitzen dut. Zakila ere
garbitzen dut.

Komunean eskuak eta
genitalak garbitzen ditut.
Zikindutako paperak eta
toallatxoak zakarrontzira
botatzen ditut.




MASTURBAZIOA = KANPAIA JO


GALTZA JAUTSI




GALTZONTZILOA JAUTSI



MASTURBAZIOA



EIAKULAZIOA




HIGIENE ARAUAK


EIAKULAZIOA



GALTZONTZILOA GOITU





GALTZAK GOITU



ESKUAK GARBITU



NESKAK ERE MASTURBATZEN DIRA



GARRANTZITSUA

Inork ez daki zuk baino hobeki
nola ikasten duen zure semeak.

Masturbazioari buruz
irakastea eta bertze gauza
batzuei buruz irakastea ez dira
oso desberdinak. Informazioa
aitzindu seguruago senti dadin..
Erantzun beti bere zalantzak
modu argian eta positiboan.




BA AL DAGO ARG GERATU EZ ZAIZUN KONTZEPTUREN BAT?




Horren inguruan ikertzeko ordua
iritsi da




ZAKILA




ZAKILA




TESTIKULUAK




GALTZAK JAUTSI




GALTZONTZILOAK JAUTSI




MASTURBAZIOA



EIAKULAZIOA



ZAKILA GARBITU



GOMENDATUTAKO LIBURUAK



DOAKO BERTZE MATERIAL BATZUK

Pubertaroan izaten diren aldaketa fisikoak aitzintzeko gida



www.sextea.es

[Descarga](#)





ZALANTZAREN BAT DUZU?

Galdetu!



www.sextea.es



[@sexualidadtea](https://www.instagram.com/sexualidadtea)



hola@sextea.es

